

ZARAUZ/SANPELAI OAK '98



Atzo Iñurritzan egindako erromeriararen irudia.

Atxerri CANELLADA

## Arrautza jaurtiketa festen hasieran

■ Udal eta gazteen arteko ika-mikak bandera igoeran lehertu ziren ostegunean. ■ Udaletxean «haserre» daudela oihukatu zuen alkateak.

Aspaldian ez bezalako tentsio giroa nagusitu zen ostegun gauerdian udaletxe aurrean, herriko ikurrina goratu eta Pelaijo Deunaren ereserkia abestera hurbildutakoan artean. Gauerdiko hamabiak jo eta lehen suzuriaren eta su artifizialen ondoren, urtero bezala, alkatea udaletxeko baikoirra ateratu zen.

Geri BERSASALUZE

Aurtengoan, ordea, ohiko bertso edota hitzen orde, herritar guztiak erabat harrituta utzi zituen erreakzioa izan zuen Imanol Muruak, behean bildutakoan artean aspaldian ikusi gabeko moduko arrautza jaurtiketa iristen zitzaion bitartean.

Alkateak «gaur Sanpelai oak dira, baina udaletxean triste gaude» esan zuen lehenik, eta behetik dozenaka eta dozenaka arrautza iristen zitzaizkiola ikusirik, «eta haserre, oso haserre!» hasi zen oihuka, herritar guztiak harrituz.

Behean bildutakoan txistuak eta oihuak, txaloeekin nahastu ziren eta tentsio une horretan, «energumeno batzuek festak izoratu» nahi dituztela esan zuen alkateak mikrofonoetatik, oraindik ere behetik iristen zitzaizkion arrautzak saihesteko ahaleginetan. Ondoren, Udal Bandak San Pelaioren ereserkia jotzeari ekin zion eta orduan barretu zen giroa, herritar guztiak kantari hasi zirenean.

Udaletxe aurrerako ekitaldia amaitu zenean, harrituta, jendeak elkarri galdetzen zion alkatearen erreakzioaren nondik norakoaren arrazoiri bat. Dirudienek, bandera igo baino

hogeiren bat minutu lehenago izan zen arazorik udal ordezkariaren eta hainbat gazteren artean. Azken hauek, Gaztelekuari buruzko pankarta handi bat zabaldu zuten udaletxe aurrean eta, berehala, udaltzainak hurbildu ziren hura kentzera.

### Alberdi ostikoka

Gazteek arrautzak jaurtiz erantzun zieten eta alkatea agertu zen orduan. Antza, ikurrinariaren igoerarako prestaturik zituzten arrautzak bota zizkioten orduan gazteek alkateari. Honek, erabat haserre, Jon Alberdi zinegotziarekin batera gazteengana jo zuen.

Gazteen esanetan, «erabat suturik etorri zitzaizkigun biak. Alberdi ondoan genituen arrautza pilei ostikoka eta haien gainean saltoka hasi zitzaigun, arrautzak hautsiz eta goizean Zamarreño guk hil genuela esanez. Edanda zeudela iruditu zitzaigun arren, flipatuta gelditu ginen, Gaztelekuarekiko gure asmoak PPko zinegotziaren aurkako atentatuekin nahastu baitzitezuten behin eta berrir». Une haietan, zenbait gazteren eta zinegotziaren artean tentsioa asko goratu zen eta buitzakadak ere

izan ziren. Gertaera hauek izan ziren, jendearen esanetan, geroko alkatearen jarrera eta hitzak ulertzeko giltzarria.

Esan bezala, ordea, Pelaijoaren ereserkia abestu ondoren jai giroa nagusitu zen herritarren artean eta tabernetan. Musika Plazan zein txosnietan giro ederra egon zen. Dena dela, behin betatik aurrera aurreko urteetan baino jende gutxiago ibili zen kalean. Atzo, berriz, egitarauak bere horretan jarraitu zuen eta, besteak beste, Udal Bandak kontzertua eskaini zuen arratsaldeko ordu leon Musika Plazan. Arratsaldean, koadriak batu eta erromerian joan ziren Iñurritzako zelaira. Bertan, ohi bezala, erromeria egin zen trikitalariekin eta botila sagardoekin alaiturik.

Iñurritzan bertan atzo arratsaldeko Setan Gestorak deituta aste honetan Mexikoko gobernuak polizia espainiarraren esku utzitako Iñigo Azkue errefuxiatu zarautzaira aske utzea eskatzeko bilkura egin zen. Gestorakoen esanetan, «Iñigo bihar —gaur— pasako da epailearen aurretik, baina, bitartean, polizia eskuetan dago, torturatua izateko arrisku larrian».

# TXIKI POLI T

P E N T S I O  
T A B E R N A  
J A T E T X E A

Baitu eta TB. duten logelak.  
Pentsio osoa  
edo pensio erdia.

Musika plaza II. (943) 83 53 57  
ZARAUZ

**SUKALDEK**  
**NAKI**  
NEURRIZKO ALTZARIAK  
BEREZIKI:  
SUKALDEKÓ ALTZARIAK

GRAN ALMACEN  
DE ELECTRODOMESTICOS  
ZARAUZ  
DIVERSAS MARCAS  
NACIONALES Y DE  
IMPORTACION

ZARAUZ Pol. Abendaño, Pab. 24 • Módulo 12  
San Frantzisko, 3 Telf. 943-83 49 60-83 34 67

**Zarauz**  
**auto eskola**

Zigordia Kalea, 35-1º • Tfno. (943) 83 38 52  
Fax: (943) 83 33 47 • 20800 ZARAUZ (Gipuzkoa)

**JOANJO**  
**TELEZERBITZUAK**

KONPONKETAK:  
Telebistak  
Bideoak  
Hifi

Bizkaia Kalea, 21Tef. 13 23 81  
20800 ZARAUZ

**ELEKTRIZITATEA O.A.**

Ondo pasa festak!!

Foruen kalea, 11 • Faxa: 83.56.23

**ARRANO ELKARTEA**

KULTUR EKINTZAK, DANTZA, TXISTU,  
DANBOR, IKASTAR OAK, MONTEKIZIO  
KOROA ETA ORKESTRA,  
GIRO JATORRA, BOKATAK ETA PLATER KOMBINATUAK

**Marina Txiki**  
taberna

Lonja Zaharra, z/g • Tel. 943 83 00 17 • 20800 ZARAUZ

**mozusta**  
J A T E T X E A

• Eguneko menua. • Asteartetan babarrun jatea.  
• Menu bejeterianoa eta mexikarra enkarguz.

Allemendi, 2. VISTA ALEGRE • Tf. 83 26 51 • ZARAUZ

**KAFETEGIA**  
**EGUZKI**

**BEREZITASUNAK:**  
Pintxo hotz eta beroak.  
Eguzki ebakia.  
Goizeko 7.30etatik irekia

Nafarroa kalea, 8  
**ZARAUZ**

**TERIN**

**BIXKONDE KALEA**  
**ZARAUZ**

**PIZZERIA MOLLARRI**

Elaboración propia. También para llevar.  
La nueva pizzería zarauztarra os desea unas Felices Fiestas

Patsilea, 2 • Tel. 943-80 01 68